

BI AHIZPAK

Maiatza Louessard, 13 urte

Beskoitze

Behin, Berlin-en, Alemanian, bizitzeko aski diru zuen familia batean, Himra deitutako neskatila eder bat sortu zen otsail hotzean. Ez zuen beti nahi zukeen guzia beretako ukaiten, bera baino negu bat gehiago ikusi zuen ahizpa haundiagoa aldean baitzuen, eta hoberena harentzat baitzuen.

Xeleim Himraren ahizpa eta lagun mina zen. Bietarik bat gaizki senditzen bazen, bestea ordu eta egun osoak haren ondoan pasatzeko prest zegoen. Bi ahizpek munduan nehork maite ez duen bezala maite zuten elgar. Ttipitan, norbaitek goxoki ttipi eta goxoena bietariko bat emaiten bazion, bitan zaitu eta banatuko zuten automatikoki, gogoetatu gabe. Elgarrekin jostatuz, ikasiz, eta amestuz handitu ziren; beti elgarrekin egiten zuten beren denborapasa maitagarriena: ilargiaren eta izarren begiratzea. Hori beti binaka egiten zuten, elgar besarkaturik eta sekretu haundienak batak besteari kondatuz.

Batek zekiena besteak ere bazekien. Eskolako orduetarik kanpo, beti elgarrekin egoiten ziren, bi

gerezi bezala. Himrak ezin irudikatuzko aiurria zuen, gordetzeraz entseiatzen zen sentiberatasun izigarri batekin bizi bazen ere. Bere aitamak bereizi zirenean, biziki triste geratu zen aita ezin ikusirik. Gainera, bere ama ez zen sekula etxean eta pixka bat Xeleimi zor zion bere heziera. Aita joan zitzaientetik, bi ahizpak, nerabezaroaren ozeano haundian utzirik bezala sentitu ziren, helduen munduan sartzeko dauden zailtasunak oraindik ulertu eta gainditu beharrez. Horregatik, bazekiten beti elgarrekin izan behar zirela, bakarrik sentitzen zirenean. Bainan batzuetan, zinez bakarrik sentitzen zirenean eta haien malkoek erosotasun hain handia hartzen zutenean, laguntzazko oihuak itotzen zituzten. Himrak askotan ukaiten zituen bere bihotza tinko sentitzen zuen eraldi zail, triste, ilun eta deskribaezinak. Horrelakoetan, bere malkoetan galdurik, bere *scooter*-a hartzen zuen neguko haize hotzarekin bere larruaren mozteko, pentsatuz, beharbada, hotzaren min zorrotz horrek bere bihotzak zuen dolorea estaliko edo bederen atzenduko zuela, minuta batzuez bederen. Bestela, beste batzuetan, bere ahizpari pentsatzen zuen. Xeleimek bere beharra beti ukan beharko zuela pentsatzeak berriz pizten zuen.

Baina ez zituen une txarrak bakarrik ezagutu. Zenbaitetan ere, mundu osoa ezagutu, ulertu eta hobetu nahi zuen. Jakinminez bizi zen. Askotan, ametsak egiten ere zituen, non heroia bera baitzen. Amestutakoak bere ahizpari kondatzen zizkion. Xeleimek bere-berea zuen ipuin miresgarri

eta ederrena, azkenean, ahizpari oparitu zion. Himrak bederen hamar aldiz irakurria zuen.

Urte batzuen buruan, bi gerezi haiek haunditu eta aldatu ziren. Neskabila gazteenak, aitaren zango luzeak ukan zituen primantzan. Haren eskuetako eri puntak azazkal luze batzuez apainduak ziren, beso luze eta meheen muturretan. Aho ttipiño eta zabala zuen. Sudurrak tronpeta baten antza zuen. Begi arruntak zituen. Ile beltz luzeak, beti bi txilikordatan bilduak zituen.

Xeleimek, aldiz, ile aski laburrak zituen eta beti airean libre ibiltzen ziren. Ahizparen sudurra eta begiak zituen. Aho zabal eta luzea bere bi masail gorriek inguratzen zuten. Beso gihartsuak zituen, eri ttipi eta finekin muturretan. Berak, aldiz, zango ertainak zituen.

Biharamunean, Himra-ren urtebetetzeak izanen ziren. Bostgarren aldikotz, otsailaren hogeita bederatzian ospatu zituen. Ordura arte, bi ahizpek beti elgarrekin pasatuak zituzten beren urtebetetzeak: festa eginez, xanpaina edanez eta, azkenik, izarren begiratzera joanez. Xeleimentzat, urtebetetzeetan elgarrekin izaitea, momentu txarretan elgarrekin izaitea bezain garrantzitsua zen.

Baina egun hartan, Xeleimen masailak gorritu eta ubeldu ere egin ziren Himrak erran zionean:

– Eh!... badakizu, bihar... nere... urtebetetzea da eta..., aipatzen hasi zen malkoak begietan.

– Bai, festa handi bat eginen dugu, usaian bezala...

– Justuki ez, moztu zion.

- Zer ez?!

- Nio eta beste lagun batzuekin hondartzara joanen naiz ospatzera.

- Ados, ihardetsi zion Xeleimek.

Orduan berak zituen malkoak begietan. Ganbarako atea nigarrez pasatu zuen. Xeleim-ek etxean gelditzeko zuen arrazoin bakarra bere ahizpa zen, eta une horretan, bere eskuetatik joaiten zela iruditu zitzaion. Ez zuen ulertu nolaz bere ahizpak Nio nahiago zuen bera baino.

Beraz, bere jantziak, behar izango zituen puskak eta bere ahizpari oparitutako eta orain lapurtutako ipuina ohe gainean ezarri ondoren, zaku batean bildu zituen guziak. Biharamuneko eguna fite pasatu zen, eta Himra hondartzara joaitekotan zelarik, Xeleim harengana hurbidu zen, "Zorionak" opatu zizkion eta egundaino erran ez zion "adio" bat murmurikatu zuen Himra-ren belarrian. Ez zirudien gehiago kexu, triste zirudien.

Besarkatu zuen eta kanpoko atea pasatzen begiratu zuen. Joaitera utzi zuen. Bere ganbarara joan zen, zakua bizkarrean hartu eta leihotik ateratu zen gordeka, bere bizi berriaren hasteko.

Ordu ainitzez ibili zen pentsaketan ari izanez batera. Iruditu zitzaion mundu osoa gainera erortzen zitzaiola. Lehen izarra agertu zen eta haren inguruan eguzkiak oskorria hedatzen zuen, Xeleimi ezezaguna zitzaion itsasoari "gau on" erranez.

Bitartean Himra festa egiten ari zen hondartzan. Dantzatzen zuten, kantatzen, baina alkohol asko edaten ere zuten. Abantzu denei sudurra gorritu

zitzaien. Denak mozkor ziren, baita Himra ere. Kantatzen ari zen baso bat eskuan, bere ahizpa ilar-gia xerkatzen ari zen artean. Baina ezagun hartan hodeiek gordetzen zuten.

Joaiterakoan, Xeleim-ek ez zuen ez telefono zenbakirik ez eta helbiderik ere utzi. Joan zen unetik, bostpasei ordu iragan ziren eta, nekaturik, Mihkhaar deitutako hiriko xoko batean lokartu zen.

Himrak etxera sartzea erabaki zuen. Niok zuen autoa gidatzen eta Himra ondoan zegoen. Niok ez zekien gehiegi hartu zuen alkoholak bere bizia aldaaraziko zuela. Karrika ilun bateko bide gurutzera helduta, eskuineko autoari bide eman ordez, xuxen joan zen. Sekulako talka entzun baino lehen, erreakzio denbora pasatu eta, Himrak bere bizi osoa ikusteko denbora ukan zuen, baina bere bizi osoan bere ahizpa bakarrik ikusi zuen, bere bizkarrezurra hautsi eta koma egoeran murgildu aurretik.

Himra eta Xeleimen aita-amak, inork sekulan ikusi ez zituzten bezala arranguratuak ziren. Penatuak ziren: alaba gehiena etxetik kanpo joana zen inori ezer erran gabe, eta bestea eritetxean zuten. Une horretan “beren haurrentzat bizia emaitako prest ziren”, baina Xeleim eta Himra-k ezin zuten gehiago mezua entzun. Alta, horren entzuteko parada ukaiteko, hogeituz beha egon behar izan zuten ...

Aste bat koman egon ondoren, Himra esnatu zen. Esnatu zen, baina ez xutitu. Ezin zen gehiago

xutitu. Elbarritua zen. Orduan, haurtzaroan eta nerabezaroan ukan zituen une ilun eta zail horietako bat ukan zuen berriz. Bizkarrean izigarriko mina zuen, labana batek bere bizkarra aldean bertze zeharkatzen balio bezala. Xoriño bat kaiolan bezala sentitzen zen. Asko bilatu zuen, baina ez zuen ulertu biziaren legea. Proiektuz betea zegoen gazte eder bat zergatik zen kondenatua bere egunak gurpildun kadira batean egoitera? Ez zekien.

Anartean, Xeleim, hiriko jarleku batean, ipuin ederrenaren azken orria urratzen ari zen. Xelim-ek egunak eta hilabeteak pasatu zituen Mihkhaar-en. Han, jende, adiskide eta bizimolde berriak aurkitu zituen.

Besteak bezalako egun batean, egunero irakurtzen zuen egunkarian, "Elbarritu biziduna" deitutako artikulu batean kokatua geratu zen. Artikuluaren erdian bere ahizparen argazkia zegoen. Artikulua irakurri zuen eta ahizpari gertatu zitzaiona jakin zuen. Jakin zuen ere, Himra-k sendaezina zen beste gaitz bat ukan zuela. Lepotik ahora, bere gihar guziak ez zirela gehiago ibiliko. Ondorioz, bere ahizpa ttipia, bere izartxoa, xiringekin elikatua izanen zen eta denbora baten buruan, ahoa ezingo zuen gehiago ireki. Jakin zuen ere, ahotsa galduko zuela.

Horren jakinean izan orduko, fite korrika etxera buruz abiatu zen, bainan denbora asko behar izanen zuen etxera heltzeko.

Bitartean, Himra-k bere ahotsa gero eta gehiago galtzen zuen eta aste baten buruan, ez zen gehiago

hitz baten erraiteko gai izanen. Xeleim ez zen gehiago abandonaturik sentitzen. Aldi hartan, berak zuela Himra utzi pentsatzen zuen. Kilometroak eta kilometroak egin zituen, eta azkenik, etxera heldu zen. Bere ahizpa horrela ikusirik, baratzean, bere gurpildun kadiran jarririk, negarrari eman zion. Himra-k ezin zuen gehiago hitz bat erran.

Alta, bere ahizpa ikustean, Himraren bihotza berotu zen eta oihu tipi tipiak botatzera heldu zen. Oraino nehoiz sentitu ez zuen poz izigarri haundia zuen barnean. Orduan, neska mututuak mundu osoak entzuten ahal zuen oihu harrigarria bota zuen. Bere eritasuna desagertuz joan zen. Magikoa zen. Ororen buru, bi ahizpen maitasunak zientziarendako “eritasun sendaezina” zena sendatu zuen.

Himra-k, orrialde batean, arkatx batekin, bihotz bat eta atabal bat marraztu zituen. Xeleim-ek, bere ahizpak, ahots guzia berreskuratu eta erran nahia azaldu arte, marrazkiari buruzko hipotesia hau egin zuen: bat bihotza zen eta bestea pultsua. Bata bestea gabe ez zela gehiago deus. Bihotza eta tau-padak. Himra sendatzen zen artean, elgarrekin irakurri zuten biena izan zen ipuin mirengarri eta ederrera, oraino aldiz batez. Baina azken orria eskas baitzuen, bukaera asmatu zioten, ilargiari eta izarrei begira.